

ORDENAGAILU ERRESERBA:

5 ordenagailu dituen laborategi bateko erreserba sistema kudeatu nahi da. Menu hau eskaintzen duen programa autoerrepikakorra sortu:

- 1) Programa hasieratu. Datu guztiak hasieratu.
- 2) Erreserba egin. Programak Ikasle Zenbakia, Erreserba ordua eta zenbat Denborako erreserbatu nahi den galdetuko ditu. Ordu erdiko kopuruetan egiten da erreserba. Adibidez, datu sarrera bada, 502 12:30 3, 502 ikasleak 12:30-etan 3 ordu erdiz erreserba egin nahi duela adierazten du. Beraz, 14:00-k arte. Ez dago mugarik erreserba denboran baina erreserba ordutegia goizeko zortzietatik gaueko zortziak arte izango da. Programak adierazitako ordutik aurrera denbora kopuru hori libre dagoen ordenagailua bilatuko du eta erreserbatuko du. Hainbeste denborarako segidan ordenagailu librerik ez balego, bi aukera eskainiko ditu programak: a) ordua mantendu. b) denbora mantendu. Erabiltzaileak a) aukeratzen badu programak eskatu duen denbora ordenagailu desberdinetan erreserbatuko du. Erabiltzaileak b) aukeratzen badu programak denbora kopurua guzti hori libre dagoen ordenagailu bat bilatuko du. Eskatu den ordutik aurrera ahal den goizen.
- 3) Programa bukatu.

Eragiketa bat egin ostean laborategiko egoera pantailaratuko da. Adibidez, era honetan:

	1	2	3	4	5
Ordua	ordenagailua	ordenagailua	ordenagailua	ordenagailua	ordenagailua
08:00		301			444
08:30		301			444
09:00	612	301	701		444
09:30	612	301	701		444
10:00	612	301		222	444
10:30	143	301	612	222	444
11:00	143	301	612	222	444
11:30		301	612	222	
12:00		301	612	222	
12:30	502	301	612	222	
13:00	502	301	612	222	
13:30	502	301		222	
14:00		301		222	
14:30		301		222	
15:00				222	
15:30				222	
16:00				222	
16:30				222	
17:00					
17:30					
18:00					
18:30					
19:00					
19:30					

Hau pantailaratzeko funtzio bat sortu. Taula atzitu ahal izateko erakusleak erabiliko ditu.